

IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



**Ikasturte berria
martxan**

Kaixo herrikide!!!

Ikasturte berria martxan dugu. Hasi dira eskola, haurreskola, ikastaroak... eta herriko eragileak ere lanean ari dira. Besteak beste, Herri Kontseiluak Herri Batzarra egin du eta talde berria aurkezteaz gain, eskuartearen dituen azken gaiak azaldu ditu:

Eskola Zaharra eta Igeldo herria. Desanexiorik ez dago... Eta orain zer? Itsas Aurrek ere batzar irekia egin du bere ibilbidearen inguruan. Ale honetan duzu hori guztia.

Bestalde, ez ahaztu Udazken Jaia zain dugula. Ikusi egitaraua!

Kontzertua eskainiko du Lezkarrik azaroan, agurtu aurretik

Lezkarrri abesbatzak ikasturte berriari ekin dio eta dagoeneko kontzertu bat eskaintzekotan dabilta. Hain zuzen, azaroaren 16an izango da, 19:30etan Eskolan. Zumaiako Beheko Plaza abesbatzarekin ariko dira.

Abesbatzaren agurra

Abesbatzako kideek azaldu dutenez, ikasturte berriari ekin diote Laida Otaduyren zuzendaritzapean, baina urte bukaerara arte bakarrik izango da. Taldeak erabaki du datorren urtetik aurrera ez jarraitzea. «Jende gutxi gaude Lezkarrin. Hama-bost bakarrik momentu honetan. Gaudenok, jende berria

sartuko den itxaropena galdu dugu eta datorren urtean ez jarraitzea erabaki dugu», azaldu dute.

Gutxienez, bost kide behar

Lezkarrik aurrera jarraitzeko, bost kide berri behintzat beharoko lituzke: bi soprano, tenore bat eta bi kontraltu beharko liriteke gutxienez.

Abestea gustoko duten herriarrek animatu besterik ez dute taldean sartzeko, ez da solfeorik behar. Eta gaineratu dute, konpromiso handirik ere ez duela eskatzen abesbatzak: «astean behin bakarrik ensaiatzen dugu. Beraz, animatu!».

Ludotekan, material eta jolas berriak

2019-2020 ikasturteari ekin diogu eta Kixmik jakinarazi du ludotekako materiala egokitu eta material eta jolas berriak jarri dituztela. Urriak 15etik aurrera, Ludoteka irekita dago, beti ere guraso arduradun bat kargu eginez.

Bestalde, urriaren 14an bilera egin zuten udalekuen balorazioaren inguruan.

Ekintza ezberdinak, Euskararen Egunaren bueltan

Abenduaren 3an Euskararen Eguna izango da eta aurten ere ekintzak antolatuko dira Igeldon, egunaren bueltan. Hain zuzen, azaroak 29, 30 eta abenduak 1ean izango dira, ostiraletik igandera. Antolatzailleak hasiak dira prestaketa lanetan, baina oraindik ez dute zehaztu egitaraua.

Datorren urtean, bigarren Euskaraldia

Euskaraldiaren bigarren edizioa antolatuko da 2020an. Hori iragarritz, kale ekintzak egingo dira Euskal Herriko hiri eta herrietan azaroaren 29tik abenduaren 3ra bitarte. Igeldon ere zerbait antolatuko dutela aurreratuko dute.

Jubilatu elkarteak, itxura hartzen

Dakizuen moduan azken aldian herrian jubilatu elkarteak osatzeko lanean ari dira zenbait herritar eta adierazi digutenaren arabera, pixkanaka itxura hartzen ari da.

Legalizazio prozesua martxan jartzeko dokumentazio guztiak uztaila bukaeran aurkeztu zituzten, baina zuzendu beharreko zenbait akats zituztela erantzun zieten iraila erdialdean eta berriz ere akatsak zuzenduta, beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu berri dute.

Bestalde, elkarteak osatzeko kideak egiteko lanean ari dira azken hila-beteetan eta dagoeneko 85 kide osatu dituzte. Bide batez, udazken jaia ate joka izanik eta bertan jubilatu asko elkartzen direla aprobeztatuz, deialdia luzatu nahi dute Urriaren 27an, inork kide egiteko asmoa badu, elkarteko juntakoekin harremanetan jartzeko aukera izango duela. Azkenik, euren asmoetako bat, urte amaierarako elkarteak martxan jartzea litzateke

eta pixkanaka aurrera begira egin nahi dituzten ekintzak programatzen hastea. Donostiako udaleko dinamizatzailearekin harremanetan jarri dira eta diru laguntzak lortzeko aukerak izanik, herriko jubilatu nahien eta beharren arabera aurrekontu bat osatu beharko dute. Hala ere, gai hauen inguruan hitz egiteko, epe motzean batzar ireki bat antolatzeko ideia ere badute, guztien iritzia jaso eta ekintzak antolatzen hasteko.



Hainbat bilera egiten ari dira antolatzaileak guztia prestatzeko.

Badator Neguko bigarren Pala Txapelketa

Iaz bere funtzioa ondo bete zuela ikusita, Herri Kontseiluak eta Pelota Elkarteak elkarlanean, bigarren Neguko Pala Txapelketa antolatzea erabaki dute. Helburua, pelotan jolas-teaz gain, neguko ostiraletan herrian giro pixka bat sortzea da. Hori horrela, ostiraletan izango dira partiduak azaroaren 22an hasi eta apirilaren 3ra arte. Arratsaldean jokatuko dira, 18:30etatik aurrera. Emakumezkoak teniseko pelotarekin ariko dira eta pelota mazizarekin bi maila izango dira.

Izena emateko azken eguna, azaroak 8

Txapelketan parte hartzeko, izen ematea zabalik dago dagoeneko. Azken eguna azaroak 8 izango da. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu behar ditu.

Izena emateko, telefono honetara idatzi behar da: 648268216. Datuak Whatsappez bidaltzeko eskatu dute.

Parte hartzeko baldintzak:

- Egun aldaketarik ez da onartuko (ordu aldaketa adostuz gero, bai).
- Ordezko bakarra izango du bikote bakoitzak txapelketan.
- Partiduak jokatzeko arropa txuriarekin joan behar da.

Ikuilu onenaren saria Zendoiarentzat

Lea-Artibaiko 36. Urriko Azoka Nagusia ospatu zuten urriaren 12an Markinan. Bertan, Euskadiko 24. Blonda Txapelketa jokatu zen eta Joxe Angel Zendoiak hainbat sari eskuratu zituen. Azpimarragarriena, Ikuilu onenaren saria jaso izana, Orioko Longa baserrian duen ikuiluagatik, hain zuzen.

Sailka banatutako sariak ere izan ziren eta honakoak eskuratu zituen igeldotarrak: 6. saila (30-36 hilabete bitarteko bigak): Longa baserriko *Nahia*. 10. saila (4-5 urte bitarteko behiak txekorrik gabe): Longa baserriko *Jai*. 11. saila (5-7 urte bitarteko behiak txekorrarekin): Longa baserriko *Igeldo*. Eta 13. saila (7 urtetik gorako behiak txekorrarekin): Longa baserriko *Greta*.



«Sariak ez, baino sektorea hil ala biziko egoeratik aterako duten politikak behar ditugu baserritarrok»

Ondasarte baserriak Gipuzkoako esne ustiategi onenaren saria jaso berri du. Ondorioz, 1.000 euroko saria jaso du, hain zuzen. Ondasartekoek gustora hartu dute saria, ez zuten espero gainera, baina kritikiko ere badira halako ekimenen aurrean: «Sariak ez, baino sektorea hil ala biziko egoeratik aterako duten politikak eta erabakiak behar ditugu baserritarrok. Herri hau elikatzen jarraitu nahi dugu!», adierazi du Eneritz Otamendik.

Urriaren 7an izan zen sari banaketa Gernikan. Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba mailako sariak banatu ziren eta baita Erkidegokoak ere. Maila bakoitzean launa sari izaten dira: esne, haragi, ardi eta forraje onenaren sariak. Hiru lurraldeetako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak antolatzen dute urtero sari banaketa.



Eneritz Otamendi saria jasotzen.



Herri Kontseilu berriko kideak: Iñaki Imaz, Jaione Dorronsoro, Aratz Urruzmendi, Pello Galarraga, Ainhoa Uranga, Asier Sota, Eneko Dorronsoro eta Jexux Albeniz. Argazkian Iraitz Santa Kruz falta da.

Talde berria aurkeztu eta azken egunetako gaien berri eman zuten batzarrean

Herri Kontseilu berria martxan da eta urriaren 13an Herri Batzarra egin zuen.

Honako bederatzi herritarrek osatzen dute egungo Herri Kontseilua: Ainhoa Uranga (lehendakaria), Asier Sota (idazkaria), Iraitz Santa Kruz (diruzaina), Jexux Albeniz, Iñaki Imaz, Eneko Dorronsoro, Jaione Dorronsoro, Aratz Urruzmendi eta Pello Galarragak. Irailaz geroztik, martxan da Herri Kontseilu berria eta urriaren 13an Herri Batzarra egin zuen talde berria herritarren aurrean aurkeztu eta eskuartean dituen azkeneko gaien berri emateko.

Talde berriak gogoan izan zituen aurreko Herri Kontseiluko kideak eta eskerrak eman zizkien lau urtetan egindako lanagatik. Hain zuzen, honakoek osatu dute orain arteko Herri Kontseilua: Ainhoa Gorostidi

“**Herritarren laguntza behar dugu. Batzordeetan edo proiektu eta ekintza zehatzetan sartzeko dei egiten dugu**”

(lehendakaria), Iker Zinkunegi (idazkaria), Aitziber Alzua (diruzaina), Maider Illarramendi, Aitziber Gabilondo, Miren Zinkunegi, Ander Zubeldia, Ioritz Galparsoro eta Iñaki Aizpurua.

Hurrengo hauteskundeetan zer?

Herri Kontseilua berritzeko azken

hauteskunde hauetan, zailtasunak egon direla gogorarazi zuten batzarrean: «Hautagai izateko proposamen pila egin zituzten herritarrek, baina bederatzi lagun bakarrik agertu ginen prest konpromiso honi aurre egiteko». Hori horrela, taldean aurkeztea erabaki zuten. Eta talde horrek %32,8ko babesa jaso zuen maiatzaren 26ko hauteskundeetan.

Sortutako egoerak hausnarketa merezi duela uste dute Herri Kontseiluko kideek eta herritarrekin lanketa egin behar dela hurrengo hauteskundeetara begira. Horrez gain, orain arteko hauteskunde sistema ere Igeldorako egokia ote den zalantza dute eta landu beharra ikusten dute. Beste herri txikiak

ereduak aztertzeko asmoa azaldu zuten.

Lan egiteko modua, aurrekoen jarraipena

Herri Kontseilu berriak nola egingo duen lan ere azaldu zuen. Printzipioz, aurreko kideek zuten lan egiteko moduari eutsiko diotela adierazi zuten eta hiru batzordetan banatuta ariko direla:

1.- Hirigintza eta lurralde antolaketa-rako batzordea (obrak, zerbitzuak, azpiegiturak...); Ainhoa Uranga eta Iraitz Santa Kruz dira batzordekideak. 2.- Garapen sozialerako batzordea (Kultura, komunikazioa eta Partehartzea); Aratz Urruzmendi, Jaione Dorronsoro, Iñaki Imaz eta Asier Sota dira batzordekideak. 3.- Garapen sozioekonomikorako batzordea (musa, festak, diru iturriak aztertzear...); Jexus Albeniz, Eneko Dorronsoro eta Pello Galarraga dira batzordekideak.

Zein batzordetan edo proiektutan ikusten duzu zure burua?

Batzordeei lotuta, argi azaldu zuten herritar guztien beharra dutela proiektu eta ekintza guztiak aurrera ateratzeko eta guztiz zabalik daudela laguntza jasotzeko. «Geroz eta kide gehiago bildu batzorde bakoitzean, orduan eta eraginkorragoak izango gara», azpimarratu zuten. Herri-tarrek laguntza emateko, batzordee-

tan sartu beharrean, proiektu jakinetan bakarrik inplikatzeko aukera ere badute. Horretarako, orri batzuk prestatu zituzten honako galdera luzatuz: Zein batzordetan edo proiektutan ikusten duzu zure burua?

Batzarrean egon ez arren, interesa izanez gero, batzordeetan edo ekintza puntualetan sartzeko aukera dago Herri Kontseiluko kideren bati edo dinamizatzaileari esanda.

“ Eskola Zaharrean zer egin erabakitzeko, talde bat osatuko dugu. Lehenengo bilera urriaren 28an izango da 19:00etan Itsas Aurren ”

Zer egingo dugu Eskola Zaharrarekin?

Talde berriak eskuartean duen lehentasunezko gai bat Eskola Zaharrarena dela nabarmendu zuten. Gogorarazi zuten Eskola zaharrean teilatua eta fatxada konpondu zirela, baina oraindik proiektua zehaztu gabe dagoela; hau da, zer erabilera eman nahi zaion. Ondoren, udaletxean aurkeztuko litzateke proiektu hori aurrera eramanez.

Aurreko Herri Kontseilua gaia

lantzen hasi zen eta egindako parte hartze prozesuko ekarpenak jaso, eta ondoren batzar ireki bat deitu zuen. Proposamen ezberdinak jaso zituzten: kafetegia, eguneko zentroa, erabilera anitzeko gelak, gazte-entzako eta haurrentzako txokoa.

Herri Kontseilu berriak batzarrean azaldu zuen, aurreko kideekin elkarlanean ari direla eta erabaki dutela proiektua ondo landu eta hurrengo urrian aurkeztea. Horretarako, asmoa da talde zabal bat sortzea. Talde honek izango du ardura eztabaida prozesua herrira zabaldu eta proiektua osatzeko. Lehenengo bilera zehaztu dute. Urriaren 28an izango da, 19:00etan, kultur etxean.

Kooperatibak itzuli du mailegua

Diru kontuak ere izan zituzten hizpide. Jakinarazi zuten, Kooperatibak itzuli dituela Herri Kontseiluak mar txoan maileguan utzitako 30.000 euroak. Kooperatibak jabetza erregistroan arazoa zuen eta hori konpondu bitartean ezin zuen bankuko mailegua jaso. Arazoa konpondu du, bankuko mailegua jaso du, eta ondorioz, Herri Kontseiluak utzitako mailegua itzuli du. Hain zuzen, irailean itzuli zuen.

Balantze ekonomikoa orain egiteak ez zuela zentzurik azaldu zuten, urtea oraindik bukatzeke baitago, eta 2020ko lehenengo batzarrean egingo dela gaineratu zuten.



40 herritar inguru gerturatu zen batzarrera.

Desanexiorik ez dago... Eta orain zer?

Donostiako Udaletik Toki Entitate Txikiaren proposamena lantzen ari omen dira. Zer egin erabakitzeke, batzorde bat sortzea proposatu du Herri Kontseiluak, Itsas Aurrerekin eta herritarrekin elkarlanean.

Donostiako Udalak desanexioaren bidea ez duela onartzen jakina da, baina Igeldorako zer proposamen duen orain arte ez dio argi azaldu Herri Kontseiluari. Hori horrela, aurreko Herri Kontseiluak bilera egin zuen Eneko Goia alkatearekin abenduan, Igeldorako zuten proposamena behingoz argitu zezaten. Bilera hartan, Donostiako Udalak adierazitako soluzio bakarra Toki Entitate Txikiarena izan zen (Ente Local Menor) eta zentzu

horretan, proposamen bat lantzeko konpromisoa hartu zuen.

Herri Kontseiluak batzarrean azaldu zuen gaiari bai ala bai heldu behar zaiola eta herrian eztabaida abiatu nahi duela, «zer nahi dugun jakiteko». Horretarako, Batzorde bat sortu nahi du; batzorde zabala eta anitza, Itsas Aurrerekin elkarlanean.

Hasteko, informazioa

Herri Kontseiluak argi utzi zuen,

hasteko, informazioa bildu nahi duela: «Geroz eta informazio gehiago, geroz eta argumento gehiago izango ditugu eztabaidarako». Zentzu horretan, zuzeneko informazioa lortzeko Ereñozuko Auzo Udalarekin bildu da eta Itziarko Auzo Udalarekin biltzeko asmoa du. Legearen arabera, dagozkigun eskumenen berri izatea garrantzitsua dela gaineratu zuen eta alderdi hori ere lantzeko asmotan da.

Bi idatzitan, kezka adierazi dio Herri Kontseiluak Udalari

Herri Kontseiluak bi idatzi aurkeztu ditu iraila eta urrian, Udal erregistroan. Eta bietan kezka adierazi du. Alde batetik, Zerutxoko kurba inguruko obrari lotutakoa izan da idatzia (maiatzeko euriteek eragindako kalteak konpontzeko obra). Bertan, obrak lehenbailehen hasi eta bukatzeko eskatu dio berriz Udalari. Zenbaitetan, semaforoarekin ilara luzeak egin eta arrisku egoerak sortzen direla azpimarratu die. Udal teknikariak azaldu duenez, udazkenean zehar egitea aurreikusten dute, baina data zehatzik ezin dute esan oraingoz. Behin hasita, pare bat astetako lana izango dela aurreratu dute. Eta lan hauekin batera, Lasarmendi bideko zati bat ere konponduko

litzateke. Beste zatia, aurrerago egingo dute.

Bestetik, Pilotegi bideko obrari lotutako idatzia erregistratu da (obra honetan Pilotegiko goiko zatia asfaltatu eta babesgarria eta zabalgunek jarriko dira). Lanak 2019 urtean egingo zituztela azaldu zuten bere garaian, baina oraindik ez dutela ezer egin ikusita, Herri Kontseiluak kezka adierazi du. Izan ere, obra aurten egiten ez bada, Diputazioaren diru laguntza galduko luke Udalak eta ondorioz, lanak ez egiteko arriskua ikusten du Herri Kontseiluak. Udal teknikariak azaldu duenez, kontratuen lege berria dela eta, atzeratuta dabilta, baina proiektua aurten egiteko ahalegin guztiak egiten ari dira.

«Zakur kakak jaso egin behar dira»

Azken aldian zakur kakaz josia dago Igeldoko kaxkoa eta herritar askorentzat arazo bat izaten ari dela azaldu zuen Herri Kontseiluak batzarrean. Arazoari konponbidea jarri nahian, kampana bat jarriko du martxan, zakur jabeak kontzientziatu eta kakak jaso egin behar dituztela konturatzeke, «denon arteko elkarbizitza hobea izan dadin». Eta egiten den lekuan egiten direla, zakur kakak beti jaso behar direla azpimarratu zuten batzarrean.

Alde batetik, kartelak jarriko dira kaxkoan zehar, puntu ezberdinetan, eta bestetik, neurri desberdinak aztertzen ari dira: zakur kakak biltzeko bi polsato ki jartzea, adibidez.



Herriko gazte koadrila bat etxez etxe ibili zen Zapatari Berriko familiaren alde dirua biltzen.

60 URTE ZAPATARI BERRI BASERRIA LUR-JAUZI BATEK IRENTSI ZUELA

1959 urteko irailaren 25ean izan zen. Uholdeak eta eguraldi oso kaxkarra izan zen inguruan. Donostian bertan ere uholdeak izan ziren zenbait auzoetan eta Estatu mailan ere elurte izugarriak izan ziren. Igeldoko errepide nagusian, Zapatari Berri baserriaren parean, lur-jauzi handi bat izan zen eta baserria osorik irentsi zuen. Goizeko 10:30ak inguruan izan omen zen eta bertakoek zerbait bazetorrela atzeman eta baserritik garaz ateratzeko aukera izan zuten, baita ganadua eta ahal zuten guztia ateratzeko ere. Isidro 55 urteko gizonak 8 urte zeramatzan ohean gaixorik eta Mikaela emazteak ahalegin guztiak eginaz senarra ohetik altxatzea lortu eta bizirik irten ziren biak. Hauen alaba, semea eta honen emaztea ere bertan bizi ziren. Suhiltzaileen laguntza ere izan omen zuten eta senarra berehala ospitalera eraman zuten. Ondorengo egunetan ikusmin handia sortu zuen gertaerak eta laguntzeko asmotan, herriko gazte koadrila bat etxez etxe ibili zen Zapatari Berri baserriko familiaren alde dirua biltzen.



Errepide nagusian lur-jauzia izan zen eta baserria irentsi zuen.



Baserria erabat puskatua geratu zen.

Atal honetan, herriko argazki zaharrak plazaratu nahi ditugu. Herriko historia eta istorioak kontatuz, zer hitz egina eta pentsatua emanaz. Gure asmoa herriarekin lotura duten mota ezberdinetako argazkiak jartzea da, eta bide batez, zure etxeko bazterrak astintzea ere eskatu nahi dizugu, interesgarriak izan daitezkeen argazki zaharrak dituzun begiratu eta gurekin konpartitzeko. Guztion artean lan polita egin baitezakegu. Animatu!

Argazkiak pasatzeko deitu 627 756 185 (Jabier), 645 735 762 (Larraitx) edo emailaz bidali igeldokoorria@gmail.com helbidera.



Itsas Aurreren batzar irekian 27 lagun elkartu ziren.

25 urteko ibilbidearen balorazioa egin du Itsas Aurre elkarteak

Batzarra egin zuen Itsas Aurre elkarteak urriaren 10ean. Bertan, orain arteko ibilbidearen balorazioa azaldu zien herritarrei eta aurrera begira zer egin hitz egin zuten.

Itsas Aurre elkarteak batzar irekia egin zuen urriaren 10ean. Nahiz eta Itsas Aurreren helburua oraindik lortu ez, azken urteetan jorratutako ibilbide juridikoa amaitu dela adierazi zuten bertan eta argi ikusi dela, beste behin ere, desanexioa lortzeko bide bakarra arlo politikoan kokatzen dela.

Aurrera begira elkarteak bete beharreko funtzioen inguruan ere aritu ziren hizketan, herrian desanexioaren gaia lantzen jarraitzea beharrezkoa dela argudiatuz eta horretarako Itsas Aurre elkatea mantentzea erabaki zuten.

Bestalde, diru kontuei dago-

“ Azken epaiaren kostak Itsas Aurre elkarteari dagozkio ordaintzea eta horretarako Donostiako Udalarekin hitz egitea erabaki da ”

kienean, ibilbide juridiko luzeak sorturiko gastu guztia ordaintzea lortu dela azaldu zuten, baina azken epaiaren kostak Itsas Aurre elkarteari dagozkio ordaintzea eta

horretarako Donostiako Udalarekin hitz egitea erabaki zuten, elkar-ulertze batetara iristeko.

Proposamenak aztertu, desanexioaren borroka alboratu gabe

Etorkizunean zer egin ere izan zuten hizketagai batzarrean. Aurrera begira eta etorkizunean pentsatuz, herriarentzat onura izan daitezkeen egoera edo proposamenak aztertzea beharrezkoa ikusten dutela adierazi zuten, beti ere ahaztu gabe herritarren gehiengoaren nahia udalerrizatea dela eta desanexioaren borroka alboratu gabe.

Kooperatiba: poliki, sendo, aurrera

Donostiako Udalak Kooperatibaren jarduera baimena onartu du eta bankuaren mailegua ere lortu dute Kooperatibako kideek.

Kooperatibako kideek azaldu dute, irekiera gero eta gertuago somatzen dela: «Obren azken pausuekin batera, azpiegiturari dagozkion erosketak egin dira eta lokalaren hornikuntza zehaztuz doa». Horrez gain, hainbat traba administratibo gainditu dituztela azpimarratu dute: «Alde batetik, Donostiako Udalak Kooperatibaren

jarduera baimena onartu du; eta bestetik, bankuarekin mailegua sinatu dugu». Beraz, Kooperatiba poliki, baina sendo, aurrera doa.

Batzarra, hurrengo pausoak zehazteko

Aurreratu dutenez, laster bazkideekin Batzarra egitekoak dira aurrerantzean dituzten erronka berriei

erantzuteko. Bertan, besteak beste, honako gaiak lantzekoak dira: bazkideen kanpaina, hornikuntza eta azpiegitura kontuak, irekiera data,... eta beste hainbat kontu.

«Kooperatibak herritarrentzat onurak ekarriko dituelakoan, azken pausua zehaztu, eta aurrera!», adierazi dute.



Argazki gehiago weborrian: igeldo.eus



Giro bikaina Garagardo azokan

Aurten ere, ohikoa ez den Garagardo Azokaz gozatzeko aukera izan da Igeldon eta benetan arrakastatsua izan dela azaldu dute antolatzaileek: «Lan asko egin da, ondo saldu da, jenero ona eta goxoa zegoen, iaz baino zerbeza mota gehiago ere bazegoen, turnoetan eta jasoketan jendeak asko lagundu du, giro bikaina... Beraz, oso pozik eta oso sentsazio

onarekin geratu gara». Azoka berezi honetan, inguruan egindako garagardo artisauez gain, bertako jakiak egon dira aukeran: hegaluzea, bentreska, saltxitxak, tomatea, gindillak...

Esker ona, langudu zuten herritarrei

Ekimena, Igeldoko Kooperatibaren alde izan da eta bertan lortutako

dirua proiektua aurrera ateratzeko erabiliko da. Kooperatibatik eskerak eman nahi dizkiete laguntza emandako guztiei: «Azken garagardo azokan bazkideek eta oro har herritarrek egindako lanaren esker ona azaldu nahi dugu; txukun eta ongi lan egin genuen gure proiektuari bultzada ona emanaz».

Argazkiak ikusgai daude weborrian: [Argaki galerian \(igeldo.eus\)](http://Argaki galerian (igeldo.eus)).

2019-2020 IKASTAROAK			
IKASTAROA	EGUNA	ORDUA	LEKUA
Ingelesa	Astelehen/Astearte/Asteazken	Mailaren arabera	Eskola
Gitarra	Astelehena	16:30-17:30 (handiak); 18:30-19:30 (txikiak)	Kultur etxea
Zumba	Astelehen eta asteazken	20:00-21:00	Eskola
Pianoa	Astearte/Ostegun	Bakarka zehaztua	Kultur etxea
Yoga	Astearte	18:30-20:00 eta 20:00-21:30	Eskola
	Osteguna	20:00-21:30	
Joskintza	Astearte	17:00-18:30	Kultur etxea
Musika tailerra	Asteazkena	16:30-17:30	Kultur etxea
Panderoa	Asteazkena	17:30-18:15 (hasi berriak); 18:15-19:00 (iazkoak)	Kultur etxea
Trikitixa	Asteazkena	Bakarka zehaztua	Kultur etxea
Mekanografia	Osteguna	16:30-17:30	Kultur etxea
Frantsesa	Osteguna	18:15-19:45	Eskola
Hipopresiboak	Osteguna	20:00-20:45	Eskola
Euskal dantza	Ostirala	17:45-18:45 handiak	Eskola
	Larunbata	10:00-11:00 (hasi berriak); 11:00-12:00 (txikiak); 12:00-13:00 (ertainak)	Kultur etxea
Patin roller	Udaberrian (zehazteke)		

Mekanografia, frantsesa eta joskintza jarri dira aurten martxan, ohiko ikastaroez gain

107 ikasle dabilta aurten aurrera atera diren 13 ikastaroetan.

Ikastaroak antolatzeaz arduratzen den taldea oso pozik dago ikastaroek izan duten erantzunarekin. Iazko 10 ikastaroak aurrera atera-tzeaz gain, beste hiru berri ere martxan jarri dira aurten. Hain zuzen, mekanografia, frantsesa eta joskintza dira ikastaro berri horiek. Eta denera 107 ikasle dabilta, haur zein heldu.

Joskintza eta hipopresiboak, ikastaro laburrak

Joskintza ikastaro berria izan da aurten, eta proba moduan, hiru hilabete-ko ikastaro bezala jarri da martxan (luzatzeko aukera egon liteke). Hipopresiboekin ere aldaketa egon da aurten. Jende gutxi apuntatu da eta hasiera batean, abendura arteko ikastaro bezala antolatu da.

Euskal dantzan umeen talde berria

Euskal dantzak sekulako arrakasta izaten jarraitzen du Igeldon. Aurten, helduen taldea ez da atera, baina umeen talde berri bat osatu da hasiberriekin. Beraz, denera lau talde daude.

Yogan, musika tailerrian eta panderoan, irakasle berriak

Irakasle aldaketak izan dira aurten, yogan, musika tailerrian eta panderoan. Yogan, Aline Loitzenbauerren partez, Ana Montoya ari da eta musika tailerrian eta panderoan, Aitziber Gabilondoren partez, Maddi Cenzano hasi da.

Patin roller udaberrian

Iaz bezala, udaberri aldera patin

roller ikastaroa antolatzeko asmoa dago. Oraingo honetan ere, hiru hilabete-ko ikastaroa izango litzateke. Otsaila inguruan zabalduko da izen ematea eta orduan zehaztuko dira egun eta ordutegia.

Apuntatzeko aukera

Ikastaroak martxan izan arren, lekua egonez gero, apuntatzeko aukera badago oraindik. Horretarako, hiru bide daude:

- Kultur etxetik pasa: astelehene-tik ostegunera (15:30-19:30) eta ostiraletan (10:00-14:00).

- Telefonoz deitu: 943 31 30 30 / 606 311 734.

- Idatzi helbide hauetara: ieltxo-kulturelkarrea@ymail.com edo herrikontseilua@igeldo.eus.

“Barruan eta kanpoan ikertzen” ekin diote ikasturteari eskolan

Aurten guztira 68 ikasle dabilta Eskolan eta 10 irakasle.

Ikasturte hasieraren berri eman diote eskolako kideek Orri Informatiboari: «Ikasturte berria hasi dugu eta urtero legez, ilusio eta proiektu berriak ditugu. Aurten guztira 68 ikasle ditugu eskolan eta 10 irakasle gara.

Aurten ere zientziak landuko ditugu lehenengo hiruhilekoan. Proiektuari “Barruan eta kanpoan ikertzen” izena jarri diogu. Honekin erlazionatuta, eskolako proiektu desberdinak landuko ditugu hiruhilekoan zehar (Robotika, E-bug, Inspira eta Danio).

Bi pantaila interaktibo berri ere ekarri dizkigute eskolara. Hortaz, ia gela guztietan aukera izango dugu mundu digitalean aritzeko.

Urriak 10-11 Legasako aterpetxera joango ginen LHko ikasle guztiekin. Han hainbat jarduera egin genituen eta sorpresaren bat ere izan genuen.

Beraz, nobedade faltarik ez dago Igeldoko eskolan. Hurrengo alean gauza gehiago kontatuko dizkizuegu.

Gutaz gehiago jakin nahi baduzue, eskolako bloga jarrai ezazue. (<http://igeldoeskola.blogspot.com/>)».

Indartsu hasi du aurten ere ikasturtea Pelotak

Astean bitan izaten dira saioak: astearte eta ostegunetan, 17:30-19:00.

Iazko gorakadari eutsi dio aurten ere Pelotak. Urriko lehenengo astean hasi zirenetik, 15 neska-mutil dabilta, lehenengo eta seigarren maila bitartekoak. Iñaki Enbil eta Onditz Urruzmendi begiraleek azaldu dutenez, iaz aritu ziren zaharrenek ez dute jarraitu, hau da, DBH egitera behera jaitsi direnek, baina lau ume berri sartu dira. «Aurten txiki dexente animatu dira: 4 benjamin eta 5 alebin dabilta», azaldu dute.

Astearte eta ostegunetan aritzen dira ordu eta erdiz; 17:30etatik 19:00etara. Azken urteetan bezala, eskuz aritzeaz gain, pala ere sartuko dute tarteka. Oraindik badago apuntatzeko aukera, baina interesa izanez gero, lehenbailehen apuntatzeko azaldu dute, «gainerakoak martxa hartzen joango direlako eta gero zailagoa delako besteen erritmoa hartzea».

Txapelketak ere bai

Aurten ere, ohiko helburua dute




Eskuz ariko dira batez ere, baina palaz ere egingo dituzte saio batzuk.

elkarteko kideek: «Umeak pelotara gerturatzea eta pelotan jolas-tuz, ondo pasatzea». Horrez gain, iaz bezala, hainbat txapelketatan parte hartuko dutela azaldu dute. Lehenengo, alebinek jokatu dute eskuz, eta ondoren benjaminen txanda izango da. Eskolartekoak jokatzen dituzte. Eskuz aritu ostean, palaz ariko dira bai alebinak, baita benjaminak ere, Gipuzkoa mailako eskolartekoan.

Zaharrenek ez jarraitzea, pena

Adierazi dutenez, iaz oso talde polita osatu zuten zaharrenek eta pena izan da aurten ez jarraitzea. Horixe nahiko lukete lortu, aurten, eta etorkizunera begira: «Adin batetik aurrera ere, gaztetxoek pelotan jarraitzea nahiko genuke. Gustora ikusten dituzu, maila polita hartuz... baina gero ez dakigu zer gertatzen den behera jaisten direnean ikastera... Pena ematen du zaharrenek ez jarraitzea».



Igandez ospatuko da Udazken Jaia

Egitarau borobila
prestatu dute: azoka,
erromeria, bazkaria,
antzerkia eta taloak.

Egun bakarrera mugatu dute aurten Udazken Jaia. Igandez izango da, urriaren 27an, hain zuzen. Ohi bezala, egitarau borobila prestatu dute udazkenean girotzeko. Herriko eta inguruko produktuekin osatutako azoka, erromeria, herri bazkaria, umeentzako antzerkia eta taloak egongo dira.

UDAZKEN JAIA 2019

URRIAK 27 IGANDEA

10:30-13:30 AZOKA herriko eta inguruko produktuekin.

**Bakoitzak etxetik bere poltsa edo zorroa ekartzea denok eskertuko dugu.*

11:30-13:30 ERROMERIA plazan, Beñat Landa eta Imanol "Antxitte" trikitilariekin.

14:00etan HERRI BAZKARIA Din Din Elkarteak prestatuta. Bertan herriko aiton-amonak omenduko dira.

**Bazkarirako txartelak Txapela tabernan salgai: helduak 25€ / haurrak 12 €*

**Txartelak erosteko azken eguna: urriak 25 (ostirala)*

17:00etan ANTZERKIA haurrentzat

"Pirata Garrapataren istorioak" ikuskizuna.

18:10ean TALOAK dastatzeko aukera, Igeldoko talogileen eskutik.

OHARRA: pazan barra irekiko da pintxo eta guzti: 10:00-14:00 / 18:00-21:00

OHARRA

Iritzi-artikuluak argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak abenduan eta martxoan izango dira (igeldokoorria@gmail.com).



Itsas Aurre Kultur Etxea
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo
Tfona. 943 313 030
Emaila: igeldokoorria@gmail.com

